



Sarriugarte

etxebizitza

Aldacrak: Ugarte

Ahozkoa: Sarriugarte / Uhárte / Uhérte

“... la casería rústica titulada Sarriugarte... situada en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con inclusión de su casa accesoria o arnaga, el horno y zaguan, doscientos siete estados, equivalentes a siete areas y ochenta centiareas de cabida, y la que se compone de dos viviendas, con sus correspondientes pisos, divisiones y habitaciones...”

DJE, 2/209 or. (1870)



43° 11' 16"

2° 35' 50"

Gerediaga Elkarte / Txelu Angoitia

Neurri handiko baserri honen gaineko lehen dokumentu azterna 1704ko Bizkaiko lehen su-errolan aurkitzen dugu *Ugarte*. XVIII. mendeko lehen erdialde horretan *Ugarte* eta *Vgarte* (1745, Bizkaiko su-errolak) moduan agertzen zaigu dokumentatuta. Hortik aurrera, *Sarriugarte* (1825, PE/1825.) eta *Sarri-Ugárte* (1859, BUA, Nmcr.), *Sarri Ugarte* (1905) BUA, 40.) izango dira erabilienak. Ahozko transmisioan *Sarriugarte* eta batez ere *Uhárte* edo *Uhérte* izan dira formarik erabilienak.

Etxe handia, bizitza bikoa, auzoan dauden beste batzuen antzera eraikia, *Sarrionaindia* (**Ikus Sarrionanindia**), *Sarriurizar* (**Ikus Sarriurizar**) edo *Zereintza* (**Ikus Zereintza**) kasu. Ondo bereizten dira ohiko harrizko bi gorpuzak aldamenetan, harlanduz inguratutako lei-

hoekin beheko solairuan, hormetan ez bezala, hauetarako harlangaitza aukeratu baitzuten. Erdian, egurrezko dintela duen atartea dauka, harlanduzko janba eta harkantoiek eutsia. Lehengo solairuaren ezaugarria egurrezko egitura da, tarteko adreiluzko hormekin, eta leihoak ere halakoak dira. Ganbaran, berriz, egurrezko balkoia du alderik alde. Horma zaharragoak dituen arren, etxearen tankera XVII. mendean hedatu zena da, bat letorkeena 1709 datarekin, eskumako atean ageri den bezala. Baina badu berezitasun bat, desberdin egiten duena; gailurra ez dator bat atartearen erdiarekin. Baliteke handitze baten ondorioz gertatzea aldaketa hori, gorengoko balkoia ere beranduagokoa delako.